

DOMINISTIKUN

Senar-emazte batzuk ez euken seme-alabarik, eta egunero eskatzen eutsen Jaungoikoari.

Egunak joan eta egunak etorri, urteak joan urteak etorri, eta ez eben ezer lortu.

Deabrua agertu jaken egun baten eta esan:

—Zuok eukiko dozuen umea neuretzat izango dala itza emoten ba 'daustazue, laster emongo dautsuet zuok eske ta eske zagozen ume ori.

Eta besteak, baietz!

Aldiaren buruan, sortu zan ume ori. Eta aita-ama barriak, aren bateoko egunean, jai aundi bat egitea erabagi eben.

Orretarako aari eder bat ekarri eben etxera, biaramonean il eta jateko.

Auzoko batek, jai ori egiteko aari eder bat etxe aretara eroan ebela jakin, eta gabaz, ixil-ixillik, ara joan zan, a lapurtzeko asmotan.

Etxean sartu ta deabrua aurkitu eban bertan, umearen arimearen eske joanda. Eta deabruak lapurrar:

—Geldi..., lan aundi bat egiteko gogoa jaukat (daukat), ik (zuk) ez esan iñori. Umejaiobarri onek iru bidar usin egingo jok (dau), eta iñork "Doministikun" esaten ez ba 'jautsak (dautso), umea il, eta bere arimea inpernura eroango joat (dot).

Andik laster, umetxo orrek usin egin eban. Eta ez eutsan iñork ezer be esan. Gerotxoago, barriro be usin, eta lapurrak, iñork ezer ez ebala esaten oartzean, pentsau eban beretzat:

—Ume, ume errukarria! Eta deabruak inpernura eroan nai auala (zaituala)...! Ez orixe, ez!

Eta aoa zabalduaz, esan eban bere indar guztiakaz: "Dominístikun", aaririk ostuko ez ba 'joat (dot) be.

Deabrua..., iges; eta goikoak bera etorri ziran, an nor ete ebillan ikusten.

Gizon aari-zalea aurkitu eben an, kikilduta. Eta jazotako guztia aregandik jakin ebenean, gurasoak pozik emon eutsen aaria gizonari.

Eta ortik ei dator, umetxoak usin egitean, "Dominístikun" esateko oitura ori.

Irakurlea: Karmele Uriarte - Andereñoa Balmaseda ´ko Ikastolan